

168. FITXA Euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko gauzazko laguntzak, ondare hori Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren bidez zabaltzeko - 2025

Nori zuzendua: Euskal kultura-ondarea osatzen duten elementuen titular diren pertsona fisikoak eta erakunde publiko edo pribatuak.

Sarbide-esteka: [Euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko gauzazko laguntzak 2025-2026 - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko irailaren 3koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko gauzazko laguntzak, Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren bidez hedatzeko; horrez gain, 2025ean proiektuak aurkezteko deialdia ere egiten da](#)

Eremuak: Kultura eta Hizkuntza Politika

Zenbatekoa: 100.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/10

Laburpena

Gauzazko laguntzak hautatutako proiektuei dagozkien **digitalizazio-, edo katalogazio- eta digitalizazio-lanetatik** eratorritako gastuak finantzatuko ditu. Lan horiek Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak egikarituko ditu 2026an zehar, beharrezkoak diren zerbitzuen administrazio-kontratuen bidez.

Proiektuen digitalizazio-lanen edo katalogazio- eta digitalizazio-lanen emaitza disko gogor batean entregatzea izango da laguntza; hala ere, entrega hori beharrezkoak diren kontratazio-espedienteak gauzatzearen mende egongo da.

Hautatutako proiektuen emaitza Euskarianaren bitartez hedatuko da (<https://www.euskariana.euskadi.eus>); hau da, euskal kulturaren atari digitalaren bitartez, baliabideak zuzenean sartuta, edo haiek biltegian gordeta, proiektuaren pertsona, entitate edo erakunde sustatzaileek OAI-PMH biltegi propioa badute.

Proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte euskal kultura-ondarea osatzen duten elementuen titular diren eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11. artikuluan aurreikusten diren pertsona fisikoek, entitateek edo erakundeek, edozein dela ere haien egoitza soziala

eta fiskala dauden tokia, baldin eta baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- a) Elementu horiek jabari publikoan egotea.
- b) Elementu horien titularrek (pertsona fisikoak edo entitate publiko edo pribatuak) horiek ustiatzeko eskubideak izatea.
- c) Elementuak obra zurtzak izatea, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzean obra zurtzen datu-basean erregistratuta egotea. Datu-base hori Europar Batasunaren Jabetza Intelektualaren Bulegoak sortu eta kudeatzen du.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Euskal kultura-ondareko kultura-baliabideak digitalizatzeko edo katalogatu eta digitalizatzeko proiektuak aurkeztu daitezke deialdian; adibidez, argazkiak, grabatuak, marrazkiak, ikus-entzunezko materialak, soinu-dokumentuak, mapak, planoak, kartelak, prentsa eta funts bibliografikoak. Baliabide horiek originalak izan behar dute; ez da kopiak digitalizatzea onartuko, salbu eta dokumentu originalik ez dagoenean eta behar bezala justifikatzen denean.

Artxiboko dokumentu-funtsak digitalizatzeko proiektuek ez dituzte jasoko digitalizatzeko edo katalogatu eta digitalizatzeko laguntza hauek.

Eskatzaile bakoitzak, gehienez ere, bi proiektu aurkeztu ahal izango ditu.

Laguntzen zenbatekoa

Proiektu bakoitzaren **gehieneko aurrekontu zenbatetsia** ezingo da izan **20.000 euro** baino handiagoa (BEZa barne).

Halaber, proiektuen **aurrekontu zenbatetsia ez da inolaz ere izango** zenbateko hauek baino **txikiagoa**, proiektu motaren arabera:

- a) Digitalizazioa: **2.500 euro** (BEZa barne).
- b) Katalogazioa eta digitalizazioa: **5.000 euro** (BEZa barne).